Aurrekontu onarpenaren espedienteak - **-4.698.976,13** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2023ko Udaleko eta bere



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziarioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2023ko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2024	476.771,11
Kreditu txertaketa ELKARGUNE 1/2024	3.430,06
Kreditu txertaketa 2/2024	639.232,21
Kreditu txertaketa 3/2024	270.730,80
Kreditu txertaketa 4/2024	1.764.827,43
Kreditu gehigarria 1/2024	1.429.350,00
Kreditu gehigarria 1/2024 ELKARGUNE	185.500,00
GUZTIRA	4.769.841,61

Honegatik doiketa 4.769.841,61 €koa da eta ondorioz **espedienteak 70.865,48 euroko superabita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

Finantzen iraunkortasuna

2024ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, **3.690.857,16€**, 2023an likidatutako sarrera arrunten (**16.934.759,43€**) % 21,79 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2023ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2024rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2024rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

Aldundiaren irizpidea da 2024ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udala eta bere erakunde autonomoen kasuan, 2024an, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 21,79 a.

Gastuaren araua

	2024	2023
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	22.059.976,13	18.826.276,76
Zorren interesak:	155.287,05	159.382,92



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

SEC doikuntzak:		0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzaturako gastua:	541.671,00	2.683.527,69
Gastu konputagarria:	21.363.018,08	15.983.366,15
Gastu konputagarriaren hazkundera	33,65%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, kontuan hartu behar da 2023 ekitaldian, administrazio publikoen ekarpen finalistekin finantzaturako gastuari kenketa egiten zaio Next generation funtsaren kopuru osoa. Doiketa hau 2024 ko ekitaldian doituko den aztertuko da hurrengo kreditu aldaketarako. Atal honen datuak hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA						
Kontzeptu ekonomikoa	Bateratze		1. AZKOITIA	DITIA POLIKIROTIKO SAN JOSE	4. entitatea	
	Bateratua	Doikuntzak				
4. kap.	10.538.996,64	-1.041.158,82	10.529.935,68	1.037.560,96	12.658,82	0,00
-400.01	-19.696,12	0,00	-19.696,12	0,00	0,00	
-420.01	-9.659.112,60	0,00	-9.650.051,64	-9.060,96	0,00	
-47	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
-48	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
7. kap.	1.823.339,77	0,00	1.823.339,77	0,00	0,00	0,00
-77	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
-78	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	
	2.683.527,69	-1.041.158,82	2.683.527,69	1.028.500,00	12.658,82	0,00

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA							
Kontzeptu ekonomikoa	Bateratze		1. AZKOITIA	DITIA POLIKIROTIKO SAN JOSE	4. entitatea	5. entitatea	6. entitatea
	Bateratua	Doikuntzak					
4. kap.	10.608.522,00	-1.050.500,00	10.598.522,00	1.060.500,00	0,00	0,00	0,00
-400.01	-10.000,00	0,00	-10.000,00	0,00	0,00		
-420.01	-10.216.851,00	0,00	-10.206.851,00	-10.000,00	0,00		
-47	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00		
-48	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00		
7. kap.	160.000,00	0,00	160.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00
-77	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00		
-78	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00		
	541.671,00	-1.050.500,00	541.671,00	1.050.500,00	0,00	0,00	0,00

Gastu araua ez da betetzen, %33,65 baita gastu konputagarrien hazkundera 2023-2024 alderatuz.

1.3.- ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2024 urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, likidazioan egoera hori



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

berretsiko balitz, 1/2013 Foru arauaren 5.3 artikuluari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena egin lezake udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Honez gain, 1/2013 Foru arauaren 5.4 artikulua arabera, era berean, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari, komunikazio bat aurkeztu diezaizkete Udalbatzarrari, kontu-hartzailetzako organoak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.

b) urteko zor publikoko helburua betetzea

c) Urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

Azkoitian, 2024ko martxoak 20an
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

IRIZPENA

LEHENENGOA: Proposamenaren zerrendatzen diren Zubiaurre Elkargune Institutuaren gastuen aurrekontu partiden arteko 1/2024 kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, 185.500,00 € zenbatekoa.

ESKU8cca91db-7ae8-4da6-9c56-bef9d7dbb553



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

SARREREN KONTZEP EDOTA GASTUEN PARTIDA CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	BALIABIDEEN KONTZEPUA CONCEPTO DEL RECURSO	EGUNEKO KREDITUAK CREDITOS ACTUALES	SARRERA HAUNDIAGO/GAST BAJAK MAYORES INGRESOS Y O BAJAS EN GASTOS	BALIABIDEAREN PARTIZIALA PARCIAL DEL RECURSO
2 1000.870.000,00,01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretako/Remanente de Tesorería para gastos generales	3.430,06	185.500,00	188.930,06
	SARRERA HAUNDIAGOAK GUZTIRA/TOTAL MAYORES INGRESOS	3.430,06	185.500,00	188.930,06
	GUZTIRA		185.500,00	188.930,06
GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA				
PROPUESTA DE REALIZACIÓN DE GASTOS Y LA CORRESPONDI MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS				
PARTIDA PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	EGUNEKO KREDITUAK CREDITOS ACTUALES	GEHIKUNTZAK Aumentos	TOTALA TOTAL
0000.622.342.00.01	Elkarguneko teiltuan bizitza linea	0,00	17.000,00	17.000,00
0000.622.342.00.02	Elkarguneko teiltuan itokinak konpontzeko lanak	0,00	120.000,00	120.000,00
0000.623.342.00.03	Pilotari Pilates gelan instalakuntza aldaketak	0,00	15.500,00	15.500,00
0000.623.342.00.04	Saski baloiko kanpoan instalakuntza elektrikoa	0,00	15.000,00	15.000,00
0000.623.342.00.05	Telekomunikazio gelan aireztatze instalakuntzak	0,00	5.000,00	5.000,00
0000.625.342.00.01	Igerilekuko armairuak	0,00	13.000,00	13.000,00
VI KAPITULUA		0,00	185.500,00	185.500,00
	GUZTIRA	0,00	185.500,00	185.500,00

BIGARRENA: Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean

Antolakuntza Batzordeak, 2024ko martxoaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Asier Altuna, Iraitz Otaño, Itziar Larrañaga, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Astigarraga

Alkate andreak aipatu du Udalarekin egin den bezala, Zubiaurre Elkargune Institutuaren gerakina kalkulatu dela, eta dekretu bidez hartutako erabakien berri gero emango duela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lehengo urtean ere antzeko jokabidea egin zutela adierazi du, hau da, Elkarguneko aurrekontuak onartzerakoan ez dutela inbertsio handirik aurreikusten, Elkargunean inbertsioa jarriz gero udaleko aurrekontutik pasatu behar izaten baita. Jakitun ziren lehendik ere bazuela Elkarguneak gerakina; beraz, aurrekontuak onartu zituztenean denen artean adostutako eranskin bat jarri zuten, 2024. urterako aurreikusten ziren gastuekin.

Ondoren, gerakina erabiliz 185.000 euroko kreditu aldaketa zertan erabiliko den azaltzera pasatu da Alkate andrea.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Teilatuan itokinak konpontzeko, eta segurtasunak horrela agintzen duela suposatzen dugulako, bizitza linea jarri beharko da bai ala bai. Pilates, saskibaloia eta telekomunikazio geletan, eta igerilekuko armairuan aldakuntza batzuk egitea ere aurreikusten da. Guk ez diogu aparteko eragozpenik ikusten, beraz baietz bozkatuko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak Zubiaurre-Elkargune Institutuko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 1 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

5.- 2023-2025 AZKOITIKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2024KO BIGARREN ALDAKETAREN ONESPENA.

Honakoa da aurkeztutako proposamena:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA



AZKOITIKO UDALAREN 2023-2025 DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2024 EKITALDIKO BIGARRENGO ALDAKETA

LEHENA.- AURREKARIAK

2022ko abenduaren 22an Udal bilkura osoak, Azkoitiko Udalaren Diru-laguntzen plan estrategikoa 2023-2025 onartu zuen.

2023-2025 aldiari egongo da indarrean, eta izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da. Ez du indar arautzailerik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua agindua ematen du, diru laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartuta daudela alde aurretik diru laguntzen plan estrategiko bat egitera.

Agindu hau betez 2023-2025 urtetarako plana onartu zen.

2024ko ekitaldian, diru-laguntzei dagokionez, aldaketa batzuk onartu ziren. Ondorioz, 2023-2025 Dirulaguntzen plan estrategikoa 2024 ekitaldira egokitu zen.

BIGARRENA.- ALDAKETAK

Kultura Teknikariak, honako dirulaguntza lerro berria proposatu ditu:

- Txuri Urdin Elkarte 5.000 euro
- Parrokia 14.000 euro
- Holz und Blech 6200 euro

Dirulaguntza lerro hauek plan estrategikoan azaltzen ez direnez, hau txertatu beharra dago bertan, kulturak kudeatzen dituen dirulaguntzetan:

KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
TXURI URDIN elkarteari dirulaguntza	San Andresetan pintura eta mural lehiaketa antolatzea	Festa alaiak eta koloretsuak antolatzea, non, herritar ezberdinen afizio eta gustuek isla izango duten eta horretarako aukera menago duten	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HOLZ BLECH dirulaguntza	UND Herrian musika elektronikoaren ekitaldiak antolatzea	Musika elektronikoaren zaletasuna duen edonork, musika arloan parte hartzeko elkarte herrian izatea eta herriko ekintza eta Musika horren partaidetza izatea	6.200,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
PARROKIARI dirulaguntza	Urtean zehar Parrokiko instalazioetan antolatzen diren ekintzak burutzea.	Herrian, parrokiko instalazioak erabiliz antolatzen diren ekintzak egoera onean burutzea. Horretarako, hartu beharreko neurriak hartzea eta herritar zein bisitariek gozatu ahal izatea	14.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK

1.- AZAROAREN 17KO 38/2003 DIRULAGUNTZEN LEGEA:

Lege honen 8.1 artikulua agindua ematen du diru laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek onartu beharra daukatela beren diru-laguntzen plan estrategikoa, era honetara:

Artículo 8 Principios generales

1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

Las bases reguladoras de cada subvención harán referencia al Plan estratégico de subvenciones en el que se integran, señalando de qué modo contribuyen al logro de sus objetivos; en otro caso, deberá motivarse por qué es necesario establecer la nueva subvención, incluso aun no habiendo sido prevista en el Plan, y la forma en que afecta a su cumplimiento.

(...)"

2.- IZAERA JURIDIKOA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa da izaera programatikoa duen kudeaketa-tresna bat, indar arautzailerik ez duena.

LEHENA.- 2023-2025 Azkoitiko Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoa 2024 ekitaldiko bigarren aldaketa onartzea.

Lerro hauek erantsiko zaizkio Kultura arloari:

KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
TXURI URDIN elkarteari dirulaguntza	San Andresetan pintura eta mural lehiaketa antolatzea	Festa alaiak eta koloretsuak antolatzea, non, herritar ezberdinen afizio eta gustuek isla izango duten eta horretarako aukera menago duten	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
HOLZ UND BLECH dirulaguntza	Herrian musika elektronikoaren ekitaldiak antolatzea	Musika elektronikoaren zaletasuna duen edonork, musika arloan parte hartzeko elkarte herrian izatea eta herriko ekintza eta Musika horren partaidetza izatea	6.200,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
PARROKI Ari dirulaguntza	Urtean zehar Parrokiko instalazioetan diren ekintzak burutzea.	Herrian, parrokiko instalazioak erabiliz antolatzen diren ekintzak egoera onean burutzea. Horretarako, hartu beharreko neurriak hartzea eta herritar zein bisitariek gozatu ahal izatea	14.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

BIGARRENA.- Diru-laguntzen plan estrategikoaren 2024 ekitaldiko bigarren aldaketa argitaratzea herritarrek horren berri izan dezaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek, BDNS plataforman, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratzea.

Antolakuntza Batzordeak, martxoaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Ana Azkoitia, Sonia Vázquez , Asier Altuna, Iraitz Otaño, Itziar Larrañaga, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Astigarraga



Alkate andreak gogorarazi du Udalak ematen dituen dirulaguntza guztiak plan estrategikoan aurreikusita egon behar direla. Horregatik eta kontuan izanda 3. puntuko kreditu transferentzia onartu egin dela, dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea proposatu du Holz und Blech elkarteari dirulaguntza ordaindu ahal izateko.

Aipatutakoaz aparte dirulaguntzen plan estrategikoan beste bi sartzen direla aitortu du: Txuri-urdin elkartearena eta Parrokiarena.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honako esan du: *“Udalak ematen dituen dirulaguntza denak plan estrategikoan txertatu behar direnez, aldaketa bakoitzean berriro onartzea tokatzen zaigu, eta gure adostasuna duzue.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak 2023-2025 Azkoitiko udaleko dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2024ko bigarren aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

6.- JANIRE IGOA MERINOK, IRAURGI LANTZEN, S.A.-REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO, ZUBIAURRE-ELKARGUNE INSTITUTUAREN KONTSEILUKO ETA ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOKO ORDEZKARI GISA IZATEARI AURKEZTUTAKO DIMISIOAREN ONESPENA.

Honakoa da aurkeztutako proposamena:

ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: Janire Igoa Merinok, Iraurgi Lantzen S.A.-ren Administrazio Kontseiluko, Zubiaurre Elkargune Institutuaren Kontseiluko eta Antonio Oteiza fundazioko ordezkari gisa izateari aurkeztutako dimisioa.



AURREKARIAK

I.- 2023ko uztailaren 3an Azkoitiko Udaltzakoak, beste batzuen artean, Udal Korporazioaren ordezkarien izendapena egitea beste organo eta udalez kanpoko erakundeetan onartu zuen. Honela zioen :

“ 5.1.: ZUBIAURRE FUNDAZIOA :

Patronatuko kideak: 9

EAJ/PNV: Ana Azkoitia
Sonia Vazquez
Igor Isusquiza

EH BILDU: Iratiz Otaño
Nagore Orbea
Ainara Goenaga

AZKOITIA BAI ELKARREKIN: Jose Joakin Etxaniz
Nerea Machado

PSE/EE: Janire Igoa

**Lehendakaria: Azkoitiko udaleko Alkatea.*

**Lehendakariordea: Azkoitiko udaleko Lehenengo Alkateordea.*

5.2: IRAURGI LANTZEN S.A.

Azkoitiko udaleko ordezkariak, Alkate-Lehendakariak eta Talde Politiko bakoitzetik ordezkari banak osatuko dute.

Alkatea: Ana Azkoitia

EAJ/PNV: Sonia Vazquez

EH BILDU: Asier Altuna

AZKOITIA BAI ELKARREKIN: Jose Joakin Etxaniz

PSE-EE: Janire Igoa

5.5: ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Estatutuen 13. artikulua: Udala (orain arte Alkatea), Kukuerra Aterpetxea S.L. Antonio Oteizaren ordezkaria, eta udalak izendaturiko 4 ordezkari. Horietaz gain, 9 kide arte, beste pertsona fisiko edo juridikoak.

Patronatuko kideak:

Alkatea: Ana Azkoitia

EAJ: Sonia Vazquez

EH Bildu: Iraitz Otaño

AZKOITIA BAI ELKARREKIN: Jose Joakin Etxaniz

PSE-EE: Janire Igoa ”

II.- 2024ko martxoaren 01ean, Janire Igoa Merinok honako idatzi hauek aurkeztu zituen, 1.593, 1.594 eta 1.595 zkiak, Azkoitiko Udal Erregistro Orokorrean:

“Dña. Janire Igoa Merino... en su calidad de miembro del Consejo del Instituto Elkargune Zubiaurre/ en su calidad de miembro del Consejo de Administración de Iraurgi Lantzen S.A(Iraurgi Berritzen)/ en su calidad de miembro de la Fundación Antonio Oteiza, a los efectos de lo previsto en el artículo 4.5 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, PRESENTO MI RENUNCIA al cargo que ostento en dicha entidad, dado que es mi intención concurrir a las próximas Elecciones al Parlamento Vasco y el mencionado cargo podría suponer causa de inelegibilidad de las previstas en el art. 4.3 e) de la mencionada LEY 5/1990.”

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kasu honetan interesdunak adierazitako hautaezintasuna ematen den ala ez zehaztu beharko litzateke. Honela arautzen du 15/1990 Legearen 4.3 e) artikulua:

“ 3. Será causa de inelegibilidad el desempeño de las siguientes funciones:

e) En el sector público de los territorios históricos y de las Administraciones locales:

Titulares de direcciones generales o cargo asimilable en la Administración pública de los territorios históricos. Y quienes sean titulares de la presidencia, direcciones generales, gerencias o cualquier otro cargo asimilado a estos de organismos autónomos forales, entidades públicas empresariales forales, entes públicos forales de



derecho privado, sociedades mercantiles forales y sociedades públicas forales.

Titulares de la presidencia, direcciones generales, gerencias o cualquier otro cargo asimilado a estos de organismos autónomos locales, sociedades mercantiles locales de capital público, y entidades públicas empresariales locales o participadas mayoritariamente por ellos.

3) No obstante, serán elegibles quienes ostenten el cargo diputado o diputada general o foral, alcalde o alcaldesa, concejal o concejala y sean por ello miembros de los organismos, entes, entidades o sociedades mencionados en los apartados 1.º y 2.º con carácter nato, por estar expresamente previsto en los estatutos de dichas organizaciones.”

4.3 artikuluan araututakoaren arabera hautaezintasun kasu baten aurrean egongo ginateke. Horrenbestez interesdunaren uko egitea onartzeko organo eskuduna zein den zehaztea dagokio.

Azaroaren 29ko 2568/1986 Errege Dekretuaren, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, 38. artikulua honela xedatzen du:

“Art. 38.

Dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver sobre los siguientes puntos:

a) Periodicidad de sesiones del Pleno.

b) Creación y composición de las Comisiones informativas permanentes.

c) Nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia del Pleno.”

Udalbatzaren ordezkariak kide anitzeko organoetan izendatzea Osoko Bilkurari dagokiola kontuan hartuta, uko egiteak, organo berari onartzea dagokiola aitortu daiteke.

Beraz, Antolakuntza Batzorde Informatzaileak ondoko irizpidearen onspena proposatzen dio Udalbatzari:

EBAZPENA

BAKARRA: Janire Igoa Merinok, Iraurgi Lantzen S.A.-ren Administrazio Kontseiluko, Zubiaurre



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Elkargune Institutuaren Kontseiluko eta Antonio Oteiza fundazioko ordezkari gisa izateari aurkeztutako dimisioa onartzea.

Antolakuntza Batzordeak, 2024ko martxoaren 20an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Asier Altuna, Iraitz Otaño, Itziar Larrañaga, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Astigarraga

Alkate andreak Janire Igoak aurkeztutako sarreraren berri eman du. Bertan azaltzen denez Iraurgi Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluko, Zubiaurre-Elkargune Institutuaren Kontseiluko eta Antonio Oteiza Fundazioko kide izateari uko egiten dio PSE-EEK Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan aurkeztuko duen listan egongo baita.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honako esan du: *“Dirudienez Jaurlaritzako hauteskundeetara aurkeztea eta udal erakunde hauetan kargua izatea ez da bateragarria. Dena den aukeratua ez bada, berriro kargu hauek hartuko dituela dirudi, eta bere alderdi politikoak gure udalean beste ordezkariarik ez duenez, horrela beharko du, eta guk ez diogu eragozpenik jarriko.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak Janire Igoa Merinok, Iraurgi Lantzen, S.A.ren, Administrazio Kontseiluko, Zubiaurre-Elkargune Institutuaren Kontseiluko eta Antonio Oteiza Fundazioko ordezkari gisa izateari aurkeztutako dimisioa onartzea aho batez erabaki du.



7.- AZKOITIKO UDALA ETA ZUBIAURRE-ELKARGUNE INSTITUTUAREN 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTUHARTZAILETZA TXOSTENEN ETA ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkate andreak txostenak nahiko luzeak, zenbaki askorekin eta eragiketa askorekin daudela esan die batzarkideei. Antolakuntza Batzordean gainetik eman ziren azalpenak, eta norbaitek sakontasun gehiago nahiko baluke inongo arazorik ez dagoela gehitu du.

Ondoren Azkoitiko Udalaren eta Elkargune-Zubiaurre Institutuaren 2023ko aurrekontuen likidazioaren kontu-hartzaitzaren txostenen eta Alkatetza Dekretuen berri eman du, datu esanguratsuenak azalduz.

8.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

	Behin bet. aurr. <i>Pres. def.</i>	Baimendua <i>Autorizado</i>	Erabilia <i>Dispuesto</i>	Onart. oblig. <i>Contraído</i>	Ordainketa <i>Pagado</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	18.188.000,00	6.261.873,91	5.435.950,12	1.774.358,07	1.774.358,07
	Behin bet. aurr. <i>Pres. Def.</i>	Onar. esk. Garb <i>Dchos. Recs..</i>	Bildut-garbia <i>Recaudado</i>	Kobr. Dagoena <i>Pte. cobro</i>	Itzulketak <i>Devoluciones</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	18.188.000,00	1.962.937,36	309.606,32	1.653.331,04	3.180,98

9.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate andreak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko seiak eta hogeita bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

30

IDAZKARITZA – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idezkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: **ESKU8cca91db-7ae8-4da6-9c56-beffd7dbb553**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024PLEN0004-AKTA/ACTA (AZKOITIKO UDALA)